

BERRI OROKORRAK

2019ko urtarrilaren 11ean 15. zenbakia



Euskaraz Bizi!!!!

Hizkuntza-ohiturak aldatu nahi al dituzue?

Soziolinguistikako klusterrak hizkuntza ohiturak aldatu zituzten bikotekideekin eginiko ikerketaren azken zatiarekin goaz. Aldaketa eman zuten bikotekideei baliagarriak suertatu zitzaizkien gakoak aipatuko dizkizuegu.

- 1- Zergatik aldatu edo zerk mugitu zituzten/ Motibazioak.
- 2-Zailtasunak.
- 3-Estrategiak.

4-Gakoak

4.1.- Aldaketa handiak, motibo handiak

Bikoteko harremanaren hizkuntza aldatzeak norbere bizitzaren parte garrantzitsua aldatzea suposatzen duenez, arrazoi garrantzitsuak egon behar du tartean.

4.2.- Lorpenak azpimarratzen dituzte zailtasunak baino gehiago

Motibazioak eta aurrera egiteko gogoak lorpenak baloratuz etortzen dira.

4.3.- Bolada batean, lehenetsuna euskarari eman, ohitura finkatu arte

Bikote askok, bolada batean, beren egunerokoaren energia zati handi bat aldaketa-prozesu honi eskaini diote.

1.-Neguko jaialdiagatik eskertza.

Abenduaren 21ean egindako ospakizunetan parte hartu zenuten guztiei eskerrak eman nahi dizkizuegu. Egun polita izan zen. Bertan, horren maiteak ditugun Olentzero eta Mari Domingirekin egon ginen eta elkarrekin abestu genuen. Eskerrik asko gurekin festa antolatu eta parte hartu zenuten guztioi!

2.-2019/20 ikasturterako matrikula-kanpaina.

Urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra (biak barne), gure ikastolan, **2019-2020 ikasturterako 3 eta 16 urte bitarteko ikasle berriak aurre-matrikulatzeko epea** zabalduko dela jakinarazten dizuegu.

Ate irekien eguna urtarrilaren 26an ospatuko dugu 10:30ean eraikin berrian (Alperroburu, 5 kalean). Bertan, ikastolako funtzionamendua azalduko da eta ikastolan zehar ibiliko gara eraikuntza ikusiz. Animatu zaitetz!

Udarregi ikastolak zera eskaintzen dizue:

- ✓ **0 urtetik 16 urtera** bitarteko irakaskuntza arautua.
- ✓ **Heziketa euskalduna:** euskaraz ikasiz eta biziz, Euskal Herriko Kultura eta herri-ekintzetan murgilduz.
- ✓ **Balore eta jarrerren** lanketa, heziketaren ardatz gisa.
- ✓ **KiVa Ikastola:** Eskola Jazarpenaren (bullying) aurkako programa finlandiarra indarrean 2017ko urtarriletik aurrera beste 57 ikastolekin batera.
- ✓ **Irakaskuntza Eleanitza:** D eredu, ingelesa 4 urtetik aurrera, gaztelania Lehen Hezkuntzaren 2. mailatik aurrera, eta frantsesa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.
- ✓ **Hizkuntzetarako irakasle** espezialistak.
- ✓ **Orientazio Departamendua:** tutoretza eta banakako orientazioa. Orientazioa gurasoentzat.
- ✓ **Heziketa behar bereziak** dituztenentzat Laguntza-Gela.
- ✓ **Informazio eta Komunikazio-Teknologiak:** Informatika, Internet eta Ikus-entzunezkoak.
- ✓ **Garraio** zerbitzua.

- ✓ **Jangela:** Bertan prestatutako garaian garaiko janaria, herriko elikagaiak eta elikagai ekologikoak. Dieta orekatuak eta osatuak.
- ✓ **Eskolaz kanpoko jarduerak:** kirolak, dantza, xake, antzerkia.
- ✓ **Ikasleen goizeko zaintza:** 08:00etatik 09:00etara. Iraila eta ekainean **arratsaldeko zaintza** ere bai, 14:30etik 16:30era.

Eta aurreko guztiaren euskarri gisa:

- **50 urteko esperientzia** Usurbilen.
- **Irakasleria** egonkorra eta berrikuntza pedagogikoez arduratua.
- **Gestio demokratikoa:** guraso eta langileen partaidetza zuzena arlo guztietan.
- **Erakunde** irekia, anitza eta iritzi guztietara zabalik. **Herri Onurako Kooperatiba. Guraso Kooperatiba.**
- **Kalitatezko Hezkuntza** lortzen lagunduko digun Kalitate Aurreratuaren Kudeaketa Sistemarekin konprometituta.

Informazio gehiago izan dezazuen, honakoa kontuan har ezazue:

Ate irekien eguna
○ Urtarrilaren 26an, 10:30ean HH-ko eraikinean
Matrikulatzeko epea
○ Urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra (biak barne)
Matrikulatzeko ordutegia
○ Aldez aurretik <u>Ikastolara</u> deituz, ordua adosteko (943-361216) (3 urtetik-16urtera)
Matrikula gauatzeko ekarri beharreko agirien fotokopiak
○ Udaleko bizikidetzeta -ziurtagiria
○ Familia-liburua
○ Gurasoen NAN
○ Gizarte Segurantzako txartela
○ Kontu korrante baten zenbakia (IBAN eta BIC kodeak)
○ Haurraren argazki bat

3.-Galdeketa.

Ikastolak, hobekuntza pedagogiko iraunkorra ezartzen ari da.

Ikastolak ezarritako ikasleen irteera profila ziurtatzeko, garatzeko eta aurrera eramateko ikasgelan behar diren hobekuntza pedagogikoak aztertu, diseinatu eta ezartzeko eta hobekuntza horiek denboran irauteko prozesua abiatu du, Ikastolen Elkartearen aholkularitzarekin.

Prozesu horretan familien iritzia jaso nahi da, ondorengo galderari erantzuteko eskatuz. Minutu gutxi batzuk besterik ez dira izango!

NOLAKO GAZTEAK NAHI DITUGU UDARREGIN IKASKETAK AMAITZERA KOAN?

Aurreko galderari erantzuna emateko ikastolako e-mail bat jaso duzue esteka batekin. Estekan klik egin eta erantzun galderari mesedez.

E-mailik ez duenak idazkaritzara ekar dezake erantzuna.

4.-Garraio erabiltzaileei zuzenduta, bilera-deialdia.

Garraio erabiltzaileak zareten familiei, bilera-deialdia egin nahi dizuegu datorren **asteazkenean**, urtarrilak 16, arratsaldeko **17:00etan Udarregi eraikinean** (DBH).

5.-Eski-irteeraren inguruko bilera.

Urtarrilaren 23an, asteazkena, arratsaldeko **16:45ean Udarregi eraikinean** (DBH), urtarrilaren 26an Arettera eskiatzera joango diren ikasleen gurasoei zuzendutako informazio-bilera egingo da.

6.-Gela buruak 2.0.

Ikastola gela-buruekin, azaroan (DBH) eta abenduan (HH&LH), egindako bileretan landutako berri eta ikasturtearen hasieran jasotako gai - proposamenei emandako erantzuna eta hausnarketa berrikuntza pedagogikoaz, 1. hiru hilabete zehar egindakoaren berri webgunean eskegi da Informazioa → Gela Buruak atalean.

OHARRAK ETAPAKA



Ez dago berririk.



1.-Material kobrantza.

Jakinarazi nahi dizuegu 2018/19 ikasturteko Haur-Hezkuntzako eskola-materialaren kostua **35,55 eurokoa** dela. Kopuru hori, hileko **kuotarekin batera** kontu korronte bidez kobratuko zaizue urtarrilaren 16an. Inork **bi epetan** ordaindu nahiko balu, **dei** dezala idazkaritzara lehenbailehen (Tel.: 943361216).

2.-Danborrada.



Datorren **ostiralean, urtarrilak 18**, arratsaldeko **16:00etan** danborrada joko dugu Agerialdeko jolastokian. Aurten HHko eta LHko ikasleek batera joko dugu.

Egunean bertan, haurrak **galtza bakeroekin edo urdinekin eta koadrodun lepoko zapiarekin** bidai itzazue.

OHARRA: **astelehenerako** danborren **MAKILAK izenarekin** ekarri, mesedez

3.-Zorriak HH 4n.

HH 4ko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu. Horregatik, **ASTEBURU HONETAN, norberak bere seme-alabei ondo begiratzea eta egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.**


Arazo hau ezabatzen erraza egiten ez dela jakitun, mediku batekin alderatu ditugun zorrien aurka egiteko jarraibide batzuk emango ditugu.

Zuen seme edo alabaren batek zorriak dituela ikusten baduzue:

1. Ondo begiratu familiako denei.
2. Zaindu arretaz bakoitzaren gorputz-garbitasunari dagokiona. Hala nola:
 - Orrazien garbitasuna arretaz begiratu.
 - Bakoitzak bere orrazi, eskuila, zinta, gantxo eta bestelako ile-apaingarriak izan eta erabiliko ditu.
3. Tratamendu berezia:
 - Buruko larrua zorrien aurkako lozio batez igurtzi (**KISE, ITAX,...**) eta horrela eduki 6 edo 8 orduz toalla batez estalita.
 - Oihala kendu ondoren, hildako bartzak (arrautzak) orrazi fin batekin baino, **eskuz banan bana kentzea eraginkorragoa da.**

Zazpi egun pasa ondoren tratamendua berriz egin aurrekoan bezalaxe.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBUKAERA HONETAN EGITEN TRATAMENDUA.



1.-LH 2ko ikasleen irteera.


Datorren **asteartean**, urtarrilak 15, 2. mailako ikasleek egun osoko irteera egingo dute Pasaiara eta Albaola museoa bisitatuko dute.

2.-Danborrada.



Datorren **ostirlean**, urtarrilak 18, arratsaldeko **16:00etan** danborrada joko dugu Ageri-Aldeko patioan. Aurten LHko eta HHko ikasleek batera joko dugu.

Gogoratu egunean bertan, ikasleek **galtza bakeroa edo urdina, alkondara edo niki zuria eta laukidun lepokoa** jantzi behar dituztela.



1.-Material-kobrantza.

2018/19 ikasturteko **eskola-materiala** abenduan kobratuko zela jakinarazi genizuen, baina urtarrilaren 16an kobratuko zaizue, **hileko kuotarekin batera**.

Erreziboaren zenbatekoa zein izango den jakiteko, seme-alaben bitartez esku-orria jasoko duzue.